

Koldo Mitxelena Katedraren III Biltzarra.  
Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 8an.

## *Genitibizazioaren historiaz gehiago*

Manuel Padilla Moyano (UPV/EHU - IKER UMR 5478)



“Languages can also be said to have “ergative syntax”; i.e., some rules of coordination and/or subordination will treat O and S in the same way, and A rather differently” (Dixon 1979: 62).

# Genitibizazioa egungo euskaran

Gramatikagileek honako egoera deskribatu dute:

- a. *Aita kalean ikustea harritu nau.*
- b. *Aita**ren** kalean ikustea harritu nau.*
- c. *Aitak etxe eder hori egiteak harritu gaitu.*
- d. *\*Aita**ren** etxe eder hori egiteak harritu gaitu.*
- e. *Aita lehenbailehen etortzeak poztu nau.*
- f. *\*Aita**ren** lehenbailehen etortzeak poztu nau.*

(Abaitua & Trask 1987)

# *Transitive Object Genitive : dakitzagunak*

- Gèze 1873
- Gavel & Lacombe 1937
- Lafitte 1944
- Heath 1972
- Hualde & Ortiz de Urbina 1991
- Orpustan 1992
- Trask 1995, 1997
- Lakarra 1983, 1996

# TOGEN: araua zertan datzan

- Perpausaren aditza nominalizatua izaten denean.
- Partitiboak genitibizazioa blokatzen du.
- Aditz lokuzioetan ez: *othoitz egiteko*.
- Aditzetik aski urrun izateak TOGEN zaitzen duke.
- Ezker nahiz eskuin?
- $L = BN \neq Z$ .

# TOGEN: hurbiltze diakronikoa

- Heath: Iparraldeko berrikuntza (arrazoin funtionalak)
- Trask: Iparraldeak gorde duen arkaismoa. Ingelesaren eta euskararen *gerundioak*, jatorrian izenki hutsak.
- Egun, eztabaidarik ez (Lakarra 1983, 1996).

# Genitibizazioa, objektu zuzenaz haratago ote? (I)

Bossong 1984:

*Aitaren jiteaz atsegin dut.*

*Aitaren egite hori ikusi nahiko nukeen.*

Abaitua & Trask 1997:

“The conclusion is inescapable. In northern dialects of Basque, the P of a verbal noun may be genitivized, but never the S or the A.”

## Genitibizazioa, objektu zuzenaz haratago ote? (II)

- “Zenbait kasutan, ez da erraza genitiboa duen elementua subjektua ala osagarria ote den finkatzea” (Odriozola 1990: 137).
- Gakoa: *gerundioa* aditz ala izen portatzea.

*Aitaren jite pozgarri hori* → *jite* = izen

*Zure huna jitia* (Charlem 740) → *jite* = aditz

# Genitibizazioa, objektu zuzenaz haratago ote? (III)

*Gaxoto irabazia iratxoen da irazia* (RS 301).

*Labur da gizonaren adimentua adizeko Jaunaren ordenadua* (Barrutia, 72)

*Guretakotzat jaio da Jesus, askoren deseadua.* (Barrutia, 483)

*ayta sanctu Nicolao laugarrenarē emona eta otorgadua, eta ayta sātu sist  
lau garrenarē aprobadua ta cōfirmadua ... (TAV 3.2.2)*

BAINA:

*Gincoaz manatu den othoitcia* (Belapeire, 105) [*La priere publique  
commandée de Dieu*].

# Genitibozko subjektuak munduan

- Hizkuntza turko-altaikoetan, bereziki.  
Kornfilt 1997, Miyagawa 2008 edo Asarina & Hartman 2010.
- Ingelesean (beharbada euskararen paraleloa).  
Jespersen 1948 → Trask 1995.

# *Intransitive Subject Genitive (ISGEN)*

*Sainte Elisabeth de Portugal* (Eskiula, 1750)

*Hanitz duçu, sira,  
çoure houna gitia,  
eta Portugaleric houna  
bidian eçartia.* (110)

*Bonurra dugunaz gaignian  
arkort içateko heben,  
ene alhabaren içateko  
erreguina Portugalen.* (159)

# ISGEN: *Sainte Elisabeth de Portugal*

- Dozena bat adibide *garbi*.
- Atributu edo kopulak, inesiboak, adlatiboak, ablatiboak, modu-adberbioak.
- Ez da kontraetenplurik.
- Salbuespena: izenordain idartua + kontrol arazoak.

# ISGEN: non lekukotu dugun (oraingoz).

Zenbatenaz ekialderago, hanbatenaz maizago:

- ~ Tartas
  - + Belapeire
  - + *CatOlo*
  - + *Sainte Elisabeth de Portugal*
  - + Maister
  - + Zuberoako irri antzertiko lanetan
  - ~ *Charlemagne*
  - ~ *Meditacioniac*
  - Le Dauphin
  - ~ Adema
- Etxepare (?) Leizarraga (?) Axular (gutti)

# ISGEN: ondorioak

O → GEN

S → GEN

A → ERG

Lerratze ergatiboa: A / O, S.

Noizbait, nonbait, euskararen sintaxia ez da  
uste genuen bezain akusatiboa izan.

Aldaketa, zer norabidean?

# Genitibizazioaren jatorria: inglesa – euskara paralelotasuna (Trask 1995)

- Gerundioaren jatorri nominalari lotuak:

Ing. *-ing* ← germ. *-ung*

- “The old verbal noun in *-ing*, originally a noun pure and simple, has become a completely verbal form in modern English. The only reservation is in the form of its subject”:

*I don't approve of his doing that.*

*I don't approve of him doing that.*

*\*I don't approve of he doing that.*

# Trasken (1995) hipotesitik abiatuz...

- Izenetik aditzera: adiztasuna subjektutik markatzen has → ISGEN berrikuntza
- Hiru argumentuak genitibizatzen ahal ziren, bainan ez aldi berean. Bi agertzera, subjektua markatzen zen → ISGEN arkaismoa.

# ISGEN: azalpen diakronikoa

Bi esplikabide, bi hipotesi:

1. Berrikuntza den: sistema jada akusatiboan ergatibotasun morfologikoarekiko gertatu zatekeen erregulartze bat, arrakastarik gabe.
2. Arkaismoa den: sistema ergatiboago batetik sistema akusatibora iragaitean iraun duten aztarnak.

# Egiteke den lana

- Corpsa xeheki azterkatzea.
- Fenomenoaren maiztasuna eta agertze testuinguruak.
- Bilakaera historikoa deskribatzea.
- Noiz galdu da? Nonbait onartzen da oraino?

# *Post dictum*

*Beste pena bat handia / haurren hurrün joaitea.*

*Beharrezko izanen da / gure saiheits egoitea.*

(J. Bordaxar: *José Mendiague* pastoral).

*Esker mila*